

SANTIAGO AUO-KO HITZARMEN KOLEKTIBOAREN BATZORDE MISTOAK APLIKATU BEHARREKO PRESTAKUNTZA-FUNTSAK BANATZEKO IRIZPIDEAK.

17. ARTIKULUA. PRESTAKUNTZA_LAGUNTZAK

Santiago Ospitaleko (gaur egun, ARABAKO ESI) langileen **prestakuntza eta birziklatze profesionalerako 80.000 €-ko aurrekontua** bideratu da.

Laguntza horren betearazpenari jarraipena egiteko eskumena, bai eta hura banatzeko oinarri gisa erabiliko diren irizpideak finkatzeko eskumena honako arlo hauetan: medikuntza, erizaintza eta administrazioa eta zerbitzu orokorrak.

Osasungintza arloko etengabeko prestakuntzako eta birziklatze profesionaleko ikasketak estatuko zentro edo erakundeetan egiten dituztenek jaso ahal izango dituzte laguntza hauek, bai alderdi klinikoaren eta ikerketaren alorrekoak, bai kudeaketa eta administrazioaren alorrekoak.

Batzorde horretatik erabat kanpo geratzen dira zuzendaritzako antolamendu-irizpideak direla-eta antolatutako edozein maila profesionaletako prestakuntza-ekintza guztiak; ekintza horiek beste aurrekontu-zuzkidura batzuen bidez finantzatu behar dira.

80.00 €-ko funtsa modu honetan esleitu da:

Zeharkako prestakuntza-jarduerak: $\% 15 = 12.000,00 \text{ €}$

Zeharkako prestakuntza-jarduerak esleitu ondoren geratzen den dirua: 68.000 €

honela banatuko dira: **Erizaintza** Arloa: $\% 65 = 44.200,00 \text{ €}$

Medikuntza Arloa: $\% 20 = 13.600,00 \text{ €}$

Administrazioa eta Zerbitzu Orokorrak Arloa $\% 15 = 10.200,00 \text{ €}$

Funts hori esleitzeko orduan, lehentasuna izango dute ARABAKO ESIko lan-kontratua duten langileek eta erretiratutakoak ordeztan dituzten lan-kontratu partzialekoak.

BETEKIZUNAK

Laguntza horiek honako hauek eskatu ahal izango dituzte:

1. ARABAKO ESIko lan-kontratu finkoa duten langileek eta erretiratutakoak ordeztan dituzten lan-kontratu partzialeko langileek (errelebo-kontratua duten txandakako langileak)
2. ARABAKO ESIko izendapen estatutario finkoko langileek, bitartekoak, prestakuntzan dauden profesionalek (BAEE, BAME, BAPE...), ordezkoeak eta behin-behinekoak (Arabako ESIan gutxienez 6 hilabeteko kontratua izan dutenak aurten).
3. Laguntza horiek 2023ko irailaren 1etik 2024ko abuztuaren 31ra bitartean egindako ikasketetarako dira.
4. Prestakuntza jarduera asistentzia edo matrikulazio ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA

1. Interesa dutenek Arabako ESIko intranetaren bidez aurkeztuko dute eskaera:

https://osakidetza.sharepoint.com/sites/EsiArabaOsi_Profesionales/SitePages/formcont/eu/ayudform.aspx

2. Eskaera telematikoki bidali baino lehen, eskatzaileak kopia bat inprimatuko du. Behar bezala **sinatu eta erregistratu beharko da** edozein erregistrotan nahitaez aurkeztu beharreko gainerako agiriekin batera, Txagorritxu-Beheko solairua edo Santiago-2. C.
3. Eskabidearekin batera, behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, hala nola:
 - a. Ikastetxeko organo eskudunak **zigilatutako eta sinatutako faktura originala**, eskatzailearen izenean ordaindu dela adierazten duena, edo **eskatzaileak ikastetxera egindako banku-transferentziaren jatorrizko egiaztagiria**, ordaintzeko arrazoia eta data ere jasotzen dituen.
 - b. Bertaratze-ziurtagiriaren kopia, kongresuetarako, edo amaiera-ziurtagiria, prestakuntza-ikastaroetakoen kasuan.
 - c. Jatorrizko beste faktura edo ordainketa-frogagiri batzuk (ostatua, joan-etorriak, etab.). Kongresura/ikastarora joateko ezinbestekoak diren gutxieneko gau-kopurua ordainduko da, gaueko 90 €-ko gehieneko mugarekin, BEZa barne. Mantenu-gastuak: 21 €, bazkari edo afariagatik BEZa barne, eta 6,30 € gosari bakoitzeko (ostatuan ez badago)
 - d. Hala badagokio, kongresuan posterra/komunikazioa aurkeztu izanaren ziurtagiriaren kopia, sinposioa, eta horren egileak agertzen diren lekua.
4. Prestakuntza-planak ikasturte edo modulu bat baino gehiago egitea aurreikusten duen ikasketak bukatutzat joko dira ikasketa-programan zehazten den azken maila edo amaierako proba amaitzen den egunean. Kasu horietan, **irakasgai bakoitzerako lehen matrikula baino ez da diruz lagunduko**, eskabidean jatorrizko ziurtagiri akademikoa aurkeztuta.

Eskaerak aurkezteko epea: 2024ko azaroaren 4tik 29ra.

Prestakuntza-funts hori honako irizpide hauekin esleituko da –irizpide horiek berberak dira arlo guztietarako–: Erizaintza, Medikuntza eta Administrazioa eta Zerbitzu Orokorrak.

ESKLUSIOAK:

Honako hauetakoren bat prestatzea helburutzat duten prestakuntza-jarduerak:

- Egoiliar izateko sarbide-proba bat (BAME, BAFE, BAEE, BAPE...)
- Enplegu publikoaren eskaintza bat
- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak diruz lagundutako prestakuntza-zikloen barneko prestakuntza-jarduerak

OSAKIDETZAK ANTOLATUTAKO ETA OSPITALEARI ESKAINITAKO IKASTAROAK.

Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren ikastaroen bidaia-gastuak ordainduko dira. Ohiko garraiobidea erabiliz gero –autobusa edo trena–, txartelaren gastuak ordainduko dira, eta, bidaia ibilgailu pertsonalean eginez gero (Euskal Autonomia Erkidego barruan soilik erabil daiteke), 0,29 €/km ordainduko da (Osakidetzako araudiarekin bat etorriz).

KONGRESU ETA/EDO SINPOSIOETARA JOATEA, NON JADA ONARTUTAKO KOMUNIKAZIO EDO POSTER BAT ERAMATEN BAITA.

Matrikularen, joan-etorriaren eta ostatuaren %100 ordainduko da, gehienez ere 800€ urtean/pertsona (komunikazioarekin). Profesional batek baino gehiagok komunikazio bera badute, batek bakarrik izanen du laguntza hori jasotzeko aukera.

KONGRESUETARA EDO SINPOSIOETARA JOATEA

Gastuen % 50 ordainduko da, gehienez ere 500 €/urte/pertsona, eta gutxienez 100 €, eskatutako kopurua 100€-tik gorakoa bada. 100€ gainditzen ez dituzten gastu guztiak oso-osorik ordainduko dira.

PRESTAKUNTZA-IKASTAROETARA JOATEA

Gastuen % 100 ordainduko da, gehienezko muga 1000 €-koa delarik, eta gutxienezkoa, berriz, 100 €-koa, betiere eskatutako zenbatekoa 100 € baino gehiagokoa bada. 100 €-ko zenbateko hori gainditzen ez duten gastu guztiak osoki ordainduko dira.

Arlo batek aurrekontu-soberakinik izanez gero, gainerako arloei laga diezaieke funtsa.

Izendapen estatutario finkoko langileen, bitartekoen, behin-behinekoen eta ordezkoen –Araba ESlan gutxienez 6 hilabeteko kontratua izan dutenak aurrean– artean banatu nahiko balitz dirua eta aurrekontuan ez balego nahikoa diru erabilgarririk arestiko irizpideen arabera eskari guztiari erantzuteko, ehuneko bat murriztuko zaio eskaera orori –guztiei berdina–; murrizketa hori beharrezko proportzioan egingo da esleipenaren gutzizko zenbatekoak funtsaren zenbatekoa (80.000 €) inoiz ez gainditzeko.

Prestakuntzarako funtsak banatzeko Batzorde Mistoa bilduko da gero, lan-kontratuko langileen eskaerak ebazteko. Aldez aurretik, eskabide horien erregistroa emango zaio alderdi sozialari, eta honako hauek jasoko dira bertan: eskatzailearen langile-kopurua, lanbide-kategoria, laguntza zer prestakuntza-ekintzatarako eskatzen den, jakinarazpenik aurkeztu duen ala ez eta eskatutako zenbatekoa.

Emandako laguntzaren zenbatekoa ez da, inola ere, onuradunak egindako prestakuntza-jardueraren matrikularen zenbatekoa baino handiagoa izango, ez bakarrik, ez beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik datozen beste laguntza batzuekin batera.

Gain finantzaketarik gertatuz gero, emandako laguntzaren gehieneko zenbatekoa murriztuko da, dagokion gehieneko mugaraino. Halakorik gertatuz gero, eskatzaileak, eskabidearekin batera, agiri bidez justifikatu beharko du jasotako edo eskatutako zenbatekoaren izaera eta zenbatekoa, bai eta diru-laguntza emateko edo laguntza eskatzeko ebazpena ere.

Aurreko kasu guztietarako, eskaera guztiak betetzeko aurrekontu nahikorik ez badago, % bat kenduko zaie eskabide guztiei, esleipen osoaren zenbatekoa inoiz ez dadin izan funtsaren 80.000 euroko zenbatekoa baino handiagoa.

ESKAERAK EBAZTEA

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, dokumentazio osoa duten eskabideen zerrenda eta deialdiaren baldintzak zuzendu behar dituzten edota betetzen ez dituzten eskabideen zerrenda Arabako ESIko intranetean argitaratuko dira. Zuzenketak egiteko 10 laneguneko epea zabalduko da.

Zuzentzen ez bada, interesdunak eskabideari uko egiten diola ulertuko da.

Laguntza horiek Arabako ESIko Langileen Kudeaketako zuzendariaren ebazpenaren bidez onartu edo ukatuko dira, eta erabakia Arabako ESIko intranetean argitaratuko da.